

ARRASATE

PRESS

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10.C
ARRASATE

2

Arrasate 1989ko Uztailak 7 29 zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



23 gazte arituko dira lan hau egiten

Auzolandegietako gazteak Parrokian lanean

Arrasateko Parrokiaren bobeda edo gangetan, mendeetan zehar material ugari pilatu izan da. Bertan aintzinako arrasatearren hezurak, Parrokian erabili izan diren irudi eta imaginak edota Parrokiako teiltuan egin diren erreteilu ezberdinetan erabili izan diren teilak aurkituko ditugu. Guzti honek duen pisu ikaragarriak, Parrokiaren egitura honda dezake. Hilabete honetan, Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzarekin batera antolatutako dituen Gazte Auzolandegietan diharduten gazteak, zarama guzti hau garbitzen ahalegin-duko dira.

(16. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Udalekuak

Hile honetan 360 umek AEDk antolatutako Udalekuetan hartuko dute parte.

(11. or.)

Zinea aire zabalean

Uztaileko kultur programazioaren barruan, nobedade interesgarria daukagu, zinea aire zabalean, hain zuzen. Ostiralero, 10,30etan Monteiron Parkean izango da.

(12. or.)

ELKARRIZKETA

Xabier Lete

Ez, ez da kantaria; Arrasaten oportuntan dagoen euskaldun-amerikano sinpatikoa baizik. Xabier EE.BB.etan bizi da, eta ezin duzue imaginatu zelan egiten duen euskaraz.

(19. or.)

PODIUMA

Alberto Garai

Udako denboraldia hasi berria denean Kiroldegiko medikuarekin izan gara, kirol-medikuntza eta lesioez zerbait gehiago jakiteko asmoz.


(21. or.)



HOTZ-BERO

Kanpantorpea, 2 Tfnoa: 79 70 98 / 79 67 54
ARRASATE

TOSHIBA
BENETAKO KONFORTA



AIRE EGOKITUA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako anbulantziak	458744
-------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	798777

OSTIRALA 7

— Zinea:

Alai: "Jacknife"

Novedades: "Asunto de Mujeres"

— Zinea aire librean:

Monterron parkean, 10,30etan, "Hairspray".

— Antzerkia:

Zaldibarren 7etan, Jake Mate taldearen "Desserto". Antolatzailak: AGA eta Kakitzat

— Kantaldia:

Bergarako Frontoian, 10,30etan, OSKORRIren diska berriaren aurkezpena. Eguzkik antolatuta.

— Goardiako farmazia:

Corcuera, Musakola.

LARUNBATA 8

— Zinea:

Alai: "Jacknife"

Novedades: "Homeboy"

— Goardiako farmazia:

Irizar, Erguin.

IGANDEA 9

— Zinea:

Alai: "Jacknife"

Novedades: "Homeboy"

— Goardiako farmazia:

L. Amezua, Santa Marina.

ASTELEHENA 10

— Zinea:

Novedades: "Homeboy"

— Goardiako farmazia:

A. Ruiz, Maalako Errabala.

ASTEARTEA 11

— Hitzaldia:

Monterron kultur etxean arratsaldeko 7etan. Errekako kutsadura, bideo emanaldia. Eguzkik antolatuta.

— Goardiako farmazia:

Morales, San Andres.

ASTEAZKENA 12

— Goardiako farmazia:

Azkoaga, Ferrerías.

OSTEGUNA 13

— Hitzaldia:

Monterron kultur etxean, arratsaldeko 7etan. Uholdeak, bideo emanaldia. Eguzkik antolatuta.

— Goardiako farmazia:

Español, Iturriotz.

ERAKUSKETAK

— **Zeramika:** Leintz Zeramika Eskolako ikastaroetan egindako obrak. Inaugurazioa: hilaren 10ean, 6,30etan. Hilaren 16 arte.

— **Argazkia:** Esme Gonzalez. Gatzagako Kultur Etxean. Uztailaren 7, 8, 9, 15 eta 16an; 12etatik 2etara eta 7etatik 9etara.

— **Pintura:** Yara Pagolaren oleo eta akualerak. Galeria 44ean. Uztailaren 15 arte.

IKASTAROAK

— **Dantzak:** Balsa, pasodoble, tango eta Cha Cha Chá. Uztailaren 15 eta 16an; 10,30etatik 12,30etara eta 7,30etatik 9,30etara. Musakolako Elizan. Prezioa: Kiroldegiko bazkideentzat: 2.500 pta. Besteentzat: 3.500. Komenigarria parejatan joatea.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Hainbat kuadrila

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.900 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Nos defenderán en Europa (omen)

Ekainaren 15eko hauteskudeak izan aurretik idazten ditut lerro hauek; beraz, hautesleek zer erabaki duten ezezaguna zait, datozen urteetan Europar Legebiltzarrean zeintzu izango ditugun ordezkari ikusteke dudalarik. Botoa eman dut, orain arte izan diren deialdi gehienetan egin dudana bezalaxe. Zenbait kasutan postaz igortzeko eskubideaz ere baliatu naiz. Eta, azpimarratzen dut, artikuluxka hau hilaren 15a baino beranduago argitaratuko denez gero, ez natzaio irakurleari ezertan eragiten ari.

Ohizko inkestek diotenez, sekulako abstentzioa izango da hauteskunde hauetako ezaugarririk nabariena. Alderdi politikoez, eskuinekoak nahiz ezkertiarak, su eta garri dira abstentzioaren gaineko esangura euren interesetara bideratu nahian. Populazioaren joera, dirudenez, alderdi politikoen aginduetara makurtzen da; hori, ene ustez, horrela izan da orain arte eta, antza denez, epe hurbileko etorkizunean ere horrela izanez jarraituko du.

Dena den, abstentzioak ez du bakarrik hautesleen aldeko huts soilak adierazten. Nabariki, esango nuke, alderdiekiko nolabaiteko herri-etsipena somatzen da joera horretan. Eta gogo-hondamendi hori ez dator, noski, herriak bere baitan sorturikoa delako, herriak espero zuten erantzuna atzeratzen ari delako baizik. Erantzuna zein litekeen galdetuko balitzait, seguruasko,

ARRASATE PRESSeko orrialde guztiak ere gutxi izango lirateke zioak azaltzeko. Hala ere, nere aldetik behintzat, botoa ematera hurbildu direnen artean aurkitzen naiz. Noiz arte?

1977ko Ekainaren 15ean izan genituen diktadura osteko lehen hauteskundeak. Euskaldun nahi genuen garaiko DEIAren geniharduen zenbait lagunek Martin Ugalderekin zuzendaritzapean. Hauteskunde eguneko gorabeherak jaso eta biharanoneko egunkarian azaltzeko, albisteak telefonoz ematea eskatu zigun Martinek. Deba Garaiko lurraldea egokitu zitzaidan eta behin bozketa amaituz gero, honela mintzatu nintzaion lineaz bestaldean berriak jasotzen zituenera: "Bitxikeria bezala esan daiteke, Arrasateko hautesle bat txakur batez hurbildu dela mahaira, bere botoaren lekukotzat ipintzen zuelarik". Hurrengo eguneko kronikan honela zitekeen: "Psicosis de terror en Mondragon; un votante fue a dar el voto acompañado de un policía"

Euskaraz igorritako mezuak jasauen itzulpena ez zetorren ongi. Erdal testuinguruak behartzen zuten itzulpenak ez zuten asmatu. Asmatuko ote, hautatuta irtendakoek Europar Legebiltzarrean euskaldunok esigutu beharko genukeena agertzen? Horratx, lehen aipatutako herri-etsipen horren eredu bat; eta ez txikiena, halajaina!


Josemari Velez de Mendizabal

EDERRA

Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

KAJOI TABERNA

**erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27**



gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA
APOTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

ASA
ASEGURUAK

Zeu ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Union Cerrajeran ikertzaile pribatuak, langileak kanporatzeko

LAB Sindikatuak gogorki salatu nahi du Union Cerrajerak eduki duen sasiportaera, R.G.D. langilea kalera bota zuenetik, 1989ko Martxoaren 23an.

Hasiera batean susmoak izan baziren kaleratzearen arrazoi nagusiak, epaiketari zehar ikusi ahal izan ditugunok harrিতuta utzi gaituzte: Kalumniaren erabilpena, langilea kaleratzeko arrazoi baten bila, ikertzaile pribatu batek lau hilabetez egin dion segimendua.

Epaileak hartu duen erabakia garrantzi haundikoa izan da langileentzat. Susmo hutsean oinarritutako frogak ez bait ditu onartu.

Epaileak Union Cerrajera behartu du langilea berhartzera.

Eta berriro ere LABek Union Cerrajerak erabili dituen mafioso sistemak salatu nahi ditu.

Langile Abertzaleen Batzordeak

Batzuk behintzat, nazkatzen hasiak gara!

Duela egun batzuk, Arrasateko ikastetxe bateko maixu batzuk, ideia zoragarri bat izan zuten:

— Udan gaudenez eta mendia ederra dagoenez, zergatik ez ditugu haurrak naturak eskeintzen dizkigun opariez gozatzera eramaten?

— Bai, bai -erantzuten zuen beste batek- gainera, umeak naturarekin kontaktuan dauden bitartean, errespetatzen eta maitatzen ikasiko dute.

Hurrengo egunean denak oso pozik Kurtzebarrirantz abiatu ziren. Elizabarrira heldu, jolastu, abestu, hau da, egun zoragarria igaro, eta etxera bueltatzeko ordua heldu zenean:

— Piiiit, ordua da, utzi dena dagoen bezala eta goazen etxerantz.


— Baina maixu -esan zuen ume lelo batek- zabor guztiak hemen utzi behar ditugu ala?

— Benga goazen, berandu da eta beste batek jasoko ditu...

Eta egun polit hura bapatean goibeldu egin zen, zuhaitzak gertatutakoa ikustean negarrez hasi ziren eta txoriei abesteko gogoia joan egin zitzairen.

Maixu eta Andereñook:

Ez dakigu benetan nola gertatu zen Elizabarrikoa, dakigun gauza bakarra, guk nola aurkitu genuen da. **PASOTE BAT!**



Ekainak 18,

Asmo eder eta politik izatea oso ondo dago, hala ere asmotan gelditzen diren bitartean, ez dute ezertarako balio.

Benetan, neska-mutilei erakutsi behar dizkiezuen baloreak hauek diren bitartean, hobe bideo eta diapositiben bitartez egitea, hõrrela gutxienez izorratuko duten bakarra zuen gelak izango dira.

Bukatzeke, zer esanik ez, guzti hau nahiko lotsagarria iruditzen zaigula, baina askoz lotsagarriago, guzti honen arduradunak Heziketaren Profesional batzuk izan direla jakitean.


*Murruxiko Mendizale Elkarte
eta Aमितlx Ekologi Taldea*

Zer deritzozu selektibitatea egin beharrari?




Maria Angeles Elorza
(langilea)

Nire ustez, era batekoa ala bestekoa beti dago selektibitate bat. Ikasleek UBI bukatu ondoren egiten ez badute, ikastetxeetan sartzeko orduan egin beharko dute.



Gaizka Lasaga
(langilea)

Ez dut uste horrelako gauza baten beharra dagoenik ondoren ikasten segitu ahal izateko.



Iñaki Gurrutxaga
(langilea)

Gaizki ikusten dut, joan nahi duena joan dadila eta ondoren ikusiko da ikasteko balio duen ala ez.



Olga Parra
(ikaslea)


Nire ustez selektibitatea egin gabe nahikoa esamin egiten da. Egun bateko azterketak ezin du aztertu zenbait urtetako lana eta horrez gain gaizki antolatuta dago.

LENIZ

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9

ESKORIATZA-Arana, 13



Obea

**Ate automatikoen
ezarpena
Konponketak
Berriztapenak**

Galdetu prezioak

**IGONGAILUEN
MANTENIMENDUA**

Jose Luis Iñarra, 22-behea
Tfnoa: 79 12 08

**PINTOREA
MOKETA JARTZAILEA
KOMUNITATEKO FATXADAK**

JULIO GONZALEZ

Santamarina 24, / . ezk. Tfnoa: 79 89 79 ARRASATE

**TALLERES AGA,
S.A**

**Zerreilgintza aratzeko
gaiak**

Legarre pabiloi Industrialia
Tfnoa: 79 02 22
ARRASATE

“Ikerlan eta Ipar Euskal Herriko zenbait enpresen arteko harremanak ez dira oraingoak. Hala ere, Europako zenbait programak Euskal Herriko herrialde desberdinen arteko harremanak ahalbidetzen dituzenez, egoera hau aprobetxatu nahi da. COMETT izeneko programa da hain zuzen horretarako bidea. Programa honen barruan Unibertsitatea eta Enpresaren arteko informazio-trukea bultzatu nahi da, herrialdez herrialde. Euskal Herriari dagokionez, Hego Euskal Herriko zenbait erakunde publiko nahiz pribaturekin batera (Ikerlan tartean delarik) Ipar Euskal Herriko zenbait erakunde harremanetan jarriko dira”

(*Joserra Aizpuruak “Elhuyar” aldizkarian*)

“Gernikan jaioa, Gasteizko eskola publiko batean ematen ditu klaseak, eskolaurreko ume mukitsuei. Inork ez zion lehendakari baten emaztea izaten erakutsi. Autodidakten moduan, hanka sartzen, obserbatzen, esperientziak ikasi du. Orain dela hiru hilabete joan zen azkeneko zinera, “Rain Man” ikustera. Irakurtzeko ere ia betarik gabe, serenidade gozo batean aurkitu dut Gloria Urteaga Ajuriaeneako gela handi batean, “noizean behin” kartzela ere bilakatzen zaion jauregi horretako printzesa bat bezala, noizbait dena amaitu eta zenizienta bilakatuko den egun horren beldurrik gabe”.


(*Pako Aristi idazleak DV egunkariaren “Zabalik” gehigarrian*)

“Lan Kide Aurrezkiko zuzendariordeak zera uste du, kooperatibek gutxiago sufritu dutela krisialdian, taldearen barruan dagoen banaketari esker, elkartasun-mekanismoei esker, pertsonala aldatzeko aukeragatik, bai eta bere kapitalaren aportazioagatik.

Arrasateko kooperatibetako arduradunek baikortasunez ikusten dute taldearen geroa, urte asko daramate gertatzen Ekonomi Elkartean sartzeko, duela 10 urtetik Sobiet Batasunean kokaturik daude eta munduan zehar ordezkarri sare zabala daukate, Europako Ekialdeko zenbait herrialdetan kontratu garrantzitsuekin.”

(*Gorka Landaburu, kazetariak “Cambio 16” aldizkarian*)

Zer dira Gureak tailer babestuak? Deba Garaian elbarrituen beharrik beterik daude?



Gipuzkoako Atzeratuen senitarteen erakundeak, 1970ean ireki zuen tailerra, izan zen GUREAK tailer babestuen sorrera. Dena dela, 1975etik aurrera hasi

ginen lantegi babestu gisa lan egiten. Lantegi babestuak izatean, gure langileen segurantza soziala eta lanbide arteko gutxiengo soldataren erdia, INEMek ordaintzen digu. Bestalde, Foru Aldundiaren eta Udaletxe desberdinen laguntza ere jasotzen dugu. Nolabait erakunde guztiekin gaude harremanetan eta guztiek luzatzen digute laguntzaren bat.

Nahiz eta hasiera batean, elbarritu sikikoek bakarri izan aukera GUREAK tailerretan lan egiteko, gaur egun gormutuek edota elbarritu fisikoei ere badute aukera gure lantegietan lan egiteko.


Tailerretan lan egiten dutenen erdia gutxi gora behera kontratuarekin ari da eta besteak okupazional lanak egiten dituzte.

Gipuzkoan 15 tailer dugu eta Deba Garaian Bergarakoa baino ez. Beronek ezin die erantzun bailaran elbarrituek dituzten beharrei. Hori dela eta, Arrasaten, beste tailer bat irekitzeko asmoa dugu. Dagoeneko erosi ditugu berau eraikitzeko behar ditugun lurrak, eta datorren urterako tailerra bukatuta izatea espero dugu. Tailer honen aurreproiektuaren aurkezpena, hil honen 14ean Arrasaten ospatuko dugun Gureak tailerren festan egingo dugu.

Jose Luis Zaldua

GUREAK Tailer Babestuen lehendakaria

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a



Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89

MONTERRON PARKEAN

Z I N E M A

UZTAILAK 7,
OSTIRALA

HAIRSPRAY

Zuzendaria: John Waters

UZTAILAK 14,
OSTIRALA

STOP
MAKING
SENSE

Zuzendaria: Jonathan Demme

UZTAILAK 21,
OSTIRALA

“GOTHIC”

Zuzendaria: Ken Russell

UZTAILAK 28,
OSTIRALA

“Electric
Dreams”

Zuzendaria: John Waters

Sarrera:
200 Pta.

Arrasateko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

Lagun Aro Aseguruetan gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

Lagun Aron poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

Lagun Aro Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkarteko partaide bezala.

LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkia Taldekoa

prentsaren begia

OSTIRALA 30

CORREO: " Arrasateko udaletxearen birmoldaketa 1990.eko lehen hiru hilabetetan egon daiteke amaitua "

DEIA: " Bihar, antzerkia " Geroa " taldearekin "

DV: " Gasaren ' tarifa-gerraz ' arduratzen den auzo-koordinakundean gero eta jende gehiago ari sartzen "

EGIN: " Autengo udaleku irekietan 360 hurrek hartuko dute parte "

LARUNBATA 1

CORREO: " Grande Place antzezlanaz hasiko gaur gauean Arrasaten aire zabaleko kultur programa "

DEIA: " Eskultura -simposium-aren hutsunea betetzeko proposamena "

DV: " Arrasate Atletiko Talde-ko lau atleta lehiaketa ezberdinetarako aukeratuak "

EGIN: " Monterron Parkea izango da Uztaileko programaturiko kultur ekintzen agertokia "

IGANDEA 2

CORREO: " Arrasateko Udalak 50 lanpostu beteko aurten aldi baterako kontratazioez "

DV: " Bihar hasiko 20 gazterentzako landa-lana parrokiako bobedetan "

EGIN: " Badoa gorpuztuz Arrasateko Udaleko Gazteria-Batzordea "

ASTELEHENA 3

CORREO: " Arautegi erregulatzaille berria Arrasaten dagoen eskol kontseiluarentzat "

ASTEARTEA 4

CORRE: " Arrasateko Gazteen Asanbladak antolatuta, "gaztetxe" en arazoaz hitzegin eta eztabaidatuko da gaur arratsaldean "

DEIA: " Pertsona bat hilda buruan kolpea hartuta "

DV: " Eusko Jaurilaritza Altamiran eragiten ari den 27 etxebizitzak adjudikatzeko, itxaron egin behar "

EGIN: " Atzo hasi ziren San Joan Bataiatzailearen parrokiako hondakinak kentzeko lanak "

AZTEAZKENA, 5

CORREO: " Arrasateko Udalak obrak egiteko baimena eskatzeko derrigorra dagoela behin eta berriro esan kontratistei "

DEIA: " AEDko antolatutako ukdalekuak harrera ona "

DV: " Aurkeztu dute Iturripeko polikiroldegia izango den lehen lana "

EGIN: " ESK-CUISek ateratako idatziari buruzko argitasun batzu egin LABek "

OSTEGUNA 6

CORREO: " Udazkenean hasiko isurtegi amankomunatuaren obrak, proiektua egin aurretik has daitekeena "

DEIA: " M.C.M enpresaren lokal zaharrak egokituko "

DV: " San Viator ikastolak datorren ikasturtean jangela edukiko "

EGIN: " Amnistiaren Aldeko Gestorak oso positibotzat hartu Sanjuanetako kanpaina "

GAUR: " Arrasateko Monterron Parkea Uztailean kulturaren agertokia izango "

Usteak uste...

San Juan egunez berebilean nindoala, aukera izan nuen Loiolako Herri Irratia Udalpe elkartetik egiten ari zen irratsaioa entzuteko. Hasi-ran neu ere joateko nintzen, baina azken orduko arazok eragotzi ninduten. Adi nindoan, beraz.

Udalpen Alberto Gorriliberea, irradi esataria, zegoen eta Portaloi inguruan haren laguntzailea. Halako batean, Alberto Mondragoeko koa-driletako kide bati hasi zitzaion elkarrizketa egiten. Zer zela eta gogoratzen ez dudala, mondragoetarra Aretxabaleta Arrasateren auzoa zela esaten hasi zen. Barreak.

Dena ez zen han amaitu, ordea. Aretxabaleta Arrasateren auzoa izatea nahikoa izan ez, nonbait, eta elkarrizketatzailearen ziriei erantzun guran edo, Eskoriatza Aretxabaletakoan lorategia zela adierazi zigun, Arrasateko auzokoena, alegia. Barre handiagoak.

Badakit txantxetan ari zirela, oker ez banabil 1986ko Maritxu kajoi egunerako Aretxabaleta "auzoa" aipatuz kaleratu ziren txanpain botila haien etiketak bromatan atera ziren bezalaxe. Baina era horretako adar jotzerekin kontuz ibili beharra dago. 86ko grazia hark segituan izan zuen erantzun garratza, Arrasateren inperialismoa eta, aipatu zirenean, goian aipatutakoak izan dezakeen moduan.

Gure herrien arteko elkarlana gero eta beharrezkoa dugun honetan, gure herria goratzeko aldamenekoak gutxietsi edo iraintzea, prozedura eskasa izateaz gain, bidegabekeria galanta da.

Hogeigarren mendearen hondarean ez ditzagun tribalismo antzuek piztu, orain ereiten ditugun haizeetatik ekaitzak jaso gura ez baditugu behintzat.

Joxe Aranzabal

PUB HAIZEA



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
79 14 01

ARRASATE

Gaztetxea eta insumisioaren aldeko astea

A.G.A. eta Kakitzat taldeek antolatutako kultur aste honen barruan, bi hitzaldi-proiektzio iragarrita zuden. Tratatu behar ziren gaiak: insumisioa eta gaztetxea. Bigarren hau atzeratu egin da.

Insumisioari buruzko hitzaldian bertako objetore eta insumiso bat mintzo ziren. "Ley de Objeción de Conciencia" delakoa guztiz murrizta denez, aurtengo Otsailean hasi ziren lehenengo gazteak insumisotzat deklaratzeko euren buruak. Momentu honetan Estatuko Iparraldean 250 insumiso dago epaiketaren zain. Insumiso bakoitzeko lau lagunek euren buruak errudutzat hartu zuten, deliturako bultzatzaile gisa. Argi dago Ejertzitza ez dakiela zer egin gero eta gehiago diren insumisoe-kin, eta pilota Justizia Ministeritzara pasatzen dio. Hainbeste jende kartzelatzea zaila litzateke Estatuarentzat, eta beharbada errepresio selektiboa egingo dute.

"Prestación Social Sustitutoria" delakoari buruz ere egin zuen berba. Honekin planteatzen dena kobratu barik lan egitea da. ONCE, ICONA, hainbat Udal eta Komunitate Autonomo prest agertu dira "Lan Poltsak" prestatzeko objetoreentzat,



baina, era berean, sindikatuak borrokatzen hasi dira honen kontra. Euren laguntza funtzeskoa izango da hau geldiarazteko. Insumisoren esanetan, "momentuz, Armadaren kontra-kota bataila irabazi dugu".

Asteari amaiera emateko, ostira-lean, gaueko 10etan Zaldibarren Jake Mate talde oreretarrak "Desserto" antzerki-obra antzestuko du. Obra hau armadaz egin den hausnarketa da, eta 10 lagunek hartzen dute parte muntaian.

■ Zortzigarren pisutik bota

Asteartean, arratsaldeko 7etan, I.M.A. 21 urteko neska bere burua bota zuen Pablo Uranga kaleko 2eko 8. pisutik. Bere gorpua bi kotxeren artean gelditu zen. Momentuan hil ez zenez, Eskualdeko Ospitalera eraman zuten, baina alferrik. Ondoren, autopsia egitera Zumarragako Egoitzara.

■ Hirigintz diziplina

Obra, Hirigintza eta Ingurugiroa Batzordeak hirigintz diziplinako zenbait neurri hartu ditu aste honetan: bata "Excavaciones Besaide S.A."ri, Maiatzaren 29an Muxibarreko isurtegiaren sutzar handia egiteagatik. Informea enpresa honi ezarritako zigor-espeditari gehituko zaio; eta bestean, "Hormigones Aizko, S.A." eta "Ulgor, Koop. E." Armaio errekararen isurketa kutsagarriak bota dituztela informatzen da. Lehenengo kasuan, informea enpresa honen espeditari gehituko zaio; eta bestean, abisatzen zaio gehiagotan horrelakorik ez egiteko.

Bestalde, Udalak zera jakin arazten die kontratistei: azkenaldi honetan obra ugari udal-baimenik gabe egiten ari direla, eta arlo honetan kontratisten aldetik nolabaiteko errelajazioa ikusirik, obrak egiteko beti udal-baimena beharrezkoa dela abisatzen da. Bestela, bai eragilea bai enpresariak bai tekniko zuzentzaileak, zigorrak jasoko dituzte.

LASAGABASTER

Jantzidenda

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



Aurten iaz baino 130 haur gehiago apuntatu dira udalekuetan

360 ume udalekuetan

AEDk antolatutako udalekuetan 6 eta 12 urte bitarteko 360 haurrek hartzen dute parte. Partaidetza gorantz doa, iaz 230en bat izan ziren eta. Udalekuak adinaren araberrako bi txandetan banaturik daude, bata Uztailearen 3tik 14era (255 umeekin), eta bestea 17tik 28ra (105). Antolamenduaz 21 monitore arduratuko dira eta, besteak beste, honako tailer hauek prestatu dituzte: eskulana, okindegia, fotonobela bat egin, argazkiak errebelatu; bi eguneko irteera ere izango dira, jokuak, etab.

Ordutegia egunero 10etatik 1etara, eta 3etatik 7etara da. Helburuei dagokienez, umeen arteko harremanetan euskararen erabilpena bultzatzea dugu nagusia. Era berean, urtean zehar eskolan egindako lana sendotu nahi da. Lagun berriak egitea, elkarlanean aritzea, ingurunea eta natura ezagutzea ere helburu izango lirake.

Egitasmoak 2.900.000 pta.ko aurrekontua du, eta berau Arrasateko Udala, Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz eta haurren matrikularekin estaliko da.

■ Erdu euskaltegia AEK-tik kanpo

Uztailetik aurrera Arrasateko Erdu euskaltegia aek erakundetik kanpo dago. Erdu euskaltegiak, momentu honetan, martxan dituen ikastaroekin segituko du eta Irailean bere etorkizunaz erabakiko. Hilabete honetan Araban eta Nafarroan ere beste euskaltegi ugari geratu da erakunde horretatik kanpo.

■ Zentsua

1989ko Urtarilaren 1eko zentsu berriak Udal probisionaleko fatxadan izango dira ikusgai Uztailearen 1etik 15era. Erreklamazioak Idazkari-tzan egin daitezke 10etatik 1etara.

■ Arratoiekin akabatzeko kanpaina

Aurrera doa, Cespa enpresaren eskutik, arratoiekin akabatzeko kanpaina. Arratoien fokuren bat ikusten duenari eskatzen zaio honako zenbaki hauetara deitzea: 79 09 00 (Udaletxea) edo 79 34 33 (Cespa).

■ Ulgor, Cadem Saria 1988

Garagartzako Ulgor-ek, Inse-riales eta General Quimica-rekin batera, 1988ko Cadem saria jaso du. Saria orain dela lau urtetik hona, eragingortasun energetikoa duten enpresei ematen zaie. Saria ematerakoan, inbertitzeko esfortzuak eta ingurugiroan eragina ere kontuan hartzen dira.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otorra doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diaknostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...


Jose Luis Higuera: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previasa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, asteleheneetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea .

Arrasate



Uztaileko gau beroetan Monterron Parkean, ostiralero zinea izango da

Zinea aire zabalean Monterronen

Uztaileko kultur programazioari dagokionez, nobedade interesgarria daukagu arrasatearrok. USAko *in drive* izeneko aire zabaleko zineez gozatzeko aukera duten bezalaxe, hemen ere Uztaileko ostiral gau beroetan zinea izango dugu ikusgai Monterroneko parkean. Esan bezala, ostiralero, gaueko 10,30etan izango da: hilaren 7an, John Waters-en "Hairspray", laka euskaraz, emango da. Filme hau 60.eko hamarkadan garatzen da, dantza-lehiaketa eta disjockey giroan. Musikaz betetako

komedia antiarrazista dugu. Aipatu "Divine"ren presentzia pelikulan.

Honako beste hauek ere ikusgai izango ditugu: 14ean, "Stop Making sense", Jonathan Demme-rena. Filmearen gaia Talking Heads musika talde newyorkearra da. 21ean, Ken Russell-en "Gothic", Lord Byron eta Marie Scheller, "Frankenstein"en sortzailea, ditugu honetan protagonista. Eta, azkenik, 28an, Steve Barron-en "Amets elektrikoak". Aukera parebagea, beraz, zinezaleontzat. Eta erretzaileak ere, pozik.

Errekak bizirik

Debaldeko Eguzkik Errekak bizirik kanpaina burutuko datorren astean. Ekitaldi ugari antolatu ditu aste honetarako, berauen artean aipagarri ostiralean Bergaran burutuko den Oskorriren kantaldia edota astean zehar Bergaran, Eibarren eta Arrasaten izango diren hitzaldiak ditugu (ikus agendan). Kanpainari bukaera, Debara IX. Bizikeleta Ibi-laldiak emango dio hilaren 16an.

JAIOTZAK

Agirrebeitia Goroztidi *Ander*,
Ekainaren 19an
Baena Romero *Ruben*, Ekainaren 21ean
Moreno Gerola *Oscar*, Ekainaren 22an
Sanchez Ezkurra *Ahinoa*,
Ekainaren 22an
Horrillo Bastardo *Ruben*,
Ekainaren 23an
Ugartetxe Bengoetxea *Ohiana*,
Ekainaren 26an
Canales Aceituna *Patricia*,
Ekainaren 26an
Barbero Ramos Daniel, Ekainaren 26an
Amoros Becerra *Mikel*, Ekainaren 27an
Cantero Aguilar *Tania*, Ekainaren 28an
Oncala Garcia *Maialen*, Ekainaren 28an
Lagullón Regos *Iban*, Ekainaren 29an
Gaztariaga Atxa *Asier*, Ekainaren 29an
Garai Zabaleta *Asier*, Ekainaren 30ean
Garitaonandia Egia *Eneko*,
Uztailaren 1ean

EZKONTZAK

J. L. Vicario Vicario & Matilde Soriano
Vaena. Elizaz
Jesus M^a Vallina Fuentes & M^a Del
Carmen Ruiz Lekuona. Zibilez



comercial
SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

**ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK,
STANDARak ETA NEURRIRA.**

**DATU-BASEAK
OFIMATIKA
MANTENU-ZERBITZUA
*Ekipamendu eta programak
*Telemandua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR

Iokin Zaitegi Itzulpen Laburren II. Sariketa

Kalean dago, dagoeneko, AEDren Iokin Zaitegi Itzulpen Laburren II. Sariketaren lan saridunen liburua. Iazko edizioan honako itzulpen hauek suertatu ziren saridun: *Gene-teknologia Mikroorganismoetan*, lehen saria, Mainer Etxaide-k alemanetik itzulia; eta Andoni Sagarnaren bi akzesit, biak ingelestik itzulita: *Geneak merkatu medikora heldu* eta *Injineruek Biologian jarriak dituzte begiak*. Aurten, lehiaketaren gaia soziolinguistika dugu

Liburuaren aurkezpenean, eta Iokin Zaitegi idazle mondragoetar honen heriotzaren 10. urtemuga aurten betetzen denean, Joxemari Velez de Mendizabal bere biografiari buruz mintzo zen. Iokin Zaitegi 1906an jaio zen "Txomin txiki" e-txean. Zaitegi oso gaztea jesuita



X. Zubizarreta, J. Mujika eta J. V. de Mendizabal

eginik, 1935ean Konpainia utziko du. Bere bizitzan zehar, toki ezberdin askotan bizi izan zen. Ameriketan urte asko eman zituen. 1950ean *Eusko Gogoa* sortu zuen Guatemalan. Aldizkari honetan, funtsezkoa garai honetan euskal kulturarako, besteen artean, Orixe eta Mirande-k

idatzi zuten. Bost urte geroago Euskal Herrira itzuli zen aldizkariarekin hemen jarraitzeko asmoz, baina bere herrian, hain zuzen ere, sufritu behar izan zuen porrota. Minduta, Amerikara doa berriro, indioen artean bizitzera, orango honetan. Hemen hasi zen Platon-en obrak itzultzen. 1972an, definitiboki, Arrasatera itzuli zen zazpi urte beranduago hiltzeko.

V. de Mendizabal-ek esan zuenez, Zaitegi ezulertua izan zen bere bizitza osoan, beti korrontoaren kontra zihoan gizona. Bere obrak, oraindik ere, behar duen errekonozimendurik ez du izan. Arrasatek eskeini diezaiokeen omenaldirik onena oraindik argitaratu gabe dauden bi elkarrizketa argitaratzea litzateke.



Errosarioko domekan,

Kilometroak 89 Oñatin

Urriaren leian, Errosarioko domeka, Kilometroak 89 ospatuko da Oñatin. Eta, jadanik, prestatua dago festa. Oro har, artxakur txapelketa egiten den zelaiaren bueltan eratu dute zirkuitoa, 5 kilometrokoa. Aurtengo edizioak 80 milioiko aurrekontua du, 100en bat milioiko sarrera espero delarik. Antolakuntzan 100en bat lagunek dihardute; gehienak, Txantxiku ikastolako gurasoak. Urrirako, Foru Aldundiak San Prudentzioko bidegurutzea eta zubia zabalduko du.

comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**

■ Epeleko isurtegiaren obrak udazkenean hasiko

Datorren udazkenean hasiko dira Epeleko isurketa industrial ez toxiko eta geldoen isurtegiaren obrak. Proiektua aprobata dute definitiboki, alegaziorik aurkeztu ez delarik. Isurtegi hau udal elkarte osoarentzat izango da, orain dauden kontrolrik gabeko 20 isurtegiak desagertarazi nahi direlarik. Mankumunitatearen hurrengo bileran proiektuaren kostua finkatuko da. 1991ean bukatuta egotea espero da.

■ Aretxabaletako Toki Ageriko Pintura Lehiaketa

Joan den igandean Aretxabaletan Toki Ageriko III. Pintura Lehiaketa izan zen. 43 pintoreren artean, Bernardo Suso mondragoetarra irabazle suertatu zen, 38.000 pta.ko saria eskuratuz.

■ San Viatorrek jantokia izango

Hurrengo ikasturtetik aurrera, San Viator Ikastolak ikasleentzat jantokia izango du. 150 ikasleren gurasoek interesa ageri dute zerbitzu hau izateko. Kontutan hartu behar da ikastolako 1.000 ikasleren artean, asko inguruko herritakoak direla; eta beste askok, bertakoa izanda, problemak izaten dute bazkaltzeko euren gurasoek etxetik kanpo lan egiten bait dute. Jantokia bigarren pisuan izango da, eta 100en bat mahai-kiderentzat izango du tokia.

■ Promozio publikoko etxeak

Altamiran eraikitzen ari diren promozio publikoko etxeak adjudikatze oraindik urria edo azaroa arte itxoin egin beharko da. Hasiera batean B.O.E.ren iragarkia Ekaineko espero ba zen arren, obrak bukatu baino lau hilabete lehenago argitaratuko da.

T x a n d a k a

Haur-eskolen koordinakundeak irakaskuntzaren erreformarako proiektuari egindako balorazioa

Gobernuak Haur Heziketa (0-tik 6 urte bitartekoak) Heziketa Sistemaren barruan lehen maila bezala sartu du.

Inportantetzat jotzen dugu lorpen hau, baina Gipuzkoako Haur-Eskolen kolektibotik, etorkizuneko Lege honi egiten dizkiogun galderak eta balorazioak herriari ezagutarazi nahi diogu.


1^o-Haur-Eskola ez da oraintxe bertan sortutako gauza bat, duela urte askotatik funtzionatzen ari den Instituzioa da, heziketa lan bat beteaz asistentzi hutsezko planteamenduak gaudituz.

2^o-Positibotzat jotzen ditugu aspektu hauek: a) 0-tik 6-ra bitarteko etapa irakaskuntzakotzat onartzea. b) Aipatutako etapa honen arauketa, antolaketa eta inspektzioa Irakaskuntzaren Administrazioaren kargu egotea. d) Bertan planteatzen diren antolaketa sustatzeko irizpideak, hastapenetako argudioak, etab.

Halere, kontradikzio sakonak ikusten ditugu filosofia hau egia bihurtzeko orduan, hau da martxan jartzerakoan:

Etaparen zatiketa: Testua "El periodo 0-6 es una etapa integrada con características que la definen como tal" delakoan oinarritzen bada ere, 0-6 arteko etapa bi ziklotan banatzen dute 0-3 eta 3-6 psikopedagogikoak ez diren beste "kontsiderazio" batzuri helduz (arrazoi sozialak eta egiturarenak... eta antolaketa eta metodologi arrazoiak).

Profesionala: Etapa hau zatikatzek dakarren beste inkongruentzia bat, profesionaltasunari ematen



Eskarne Aranoa*

zaion tratamendua da. Ikuspegi diferentetik begiratzen zaie bi zikloi 0-3, 3-6, lehenengoan maisutik aparte beste profesional batzuk ere barruan direlarik. Etapa osorako titulazio bera eskatzen dugu: Haur Heziketarako Maisu espezialistarena eta gainontzeko profesionalen kategoria berdinarekin.

Ratioa: Zehaztasun handiagoa behar da.

Finantzaketa: Finantziarioa Udal eta Heziketa Administrazioetik kanpoko beste erakunde batzuekin izan daitezkeen balizko hitzarmenen eskutan uzten den momentutik esan daiteke, gure zentruen geroa ez dela inondik inora ziurtatzen.

Gure ustez Irakaskuntzaren Erreformak, bere osotasunean hartuta, Haur Heziketa antolatzeko, etaparen izaera propioa kontuan izan beharrean, gaur egunean dituen baliabideetara egokitzea baino besterik ez du egiten.

Edozein hurrek heziketarako duen eskubidea onartzen bada ere, ez dira sortzen eskaintza zabalteko beharko liratekeen baliabideak, baizik eta bere asmo guztiak ahalmen eskasena duten herraldeetako baliabideak planifikatzea zuzenduta daude.

Haur-Eskola dohain eta publikoa eskatzen dugu, hala nahi duten haur guztientzat, etapa hori zatituko ez duena; eragin guztietarako, titulazio bat bakarra eskatzen dugu (maisua bat gelako), eta Heziketa sarean sartzea.

(*) "Umezaintza" Haur-eskolako zuzendaria

ATOR



PEUGEOT TALBOT INDAR DINAMIKOA

P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75

Aurten AED elkartek San Juan festetan tonbola ikusgarria antolatu zuen eta arrasatearrek gustora hartu zuten ideia. Honen froga, tonbolan, 20.000 txartel saldu izana dugu. Ondorioz 876.850 pta. lortu zituzten AEDkoek. Dirua lortzeaz gain, sariak ere banatu ziren tonbolan. Hor dugu Joserra



Uribarren mendiko

bizikleta eder hori jasotzen, 50 pta. ren truke sari ederra.

izen propioak

Jose Angel Barrutiabengoa, 38, Uztailen Arrasateko parrokia garbitzen arituko den gazte auzolanderiak egingo duen lanaren buru da. Lan horretarako Udalak kontratatu du. Jose Angel Aranzadi elkarteko kidea da, eta besteak beste Labeko Koba eta Amandre Sante Ines-en lanetan parte hartu du. Ohizko bizitzan Zerrajerako praktikantea da.

Jose Luis Zaldua, 40, beasaindarra, BBVren gestio unitatearen koordinatzaile berria Deba Garaian. Aurretiaz Tolosako BVko zuzendaria, Jose Luis abokatua da. Halaber, "Gureak" elbarrituentzako lantegi babestuen lehendakaria da.

Amaia Aranzabal, 24, Azpeitian bizi den bergararra, Himalayako Nun mendira (7.135) doa, beste bederatzi lagunekin batera, Iñigo Ibarondo ofatiarra eta Joseba Egi-bar bergararra tartean. Amaiak Deustuan ikasi zuen Biologia eta orain zientziak irakasten ditu Azpeitiako institutuan.

Carlos Beltran de Gebara, 34, osagile arrasatearra Bergarako Udaleko langilegoaren medikuntz azterketa egiten ari da. Valladoliden ikasi ondoren, Ulgorren egin zuen lan, hamar urtez. Orain Donostian bizi da eta Irun eta Tolosako enpresa-medikua da.

Juan Jose Altuna, 46, Bergaran bizi den pintore arrasatearra "Eibar Hiria" sari berezia eta 100.000 pta. irabazi ditu, Aire Zabaleko XII. Pintura lehiaketan aurkeztutako obrarekin. Fagorren egiten du lan, Bergarako lantegian.



Gipuzkoako Foru Aldundiak, ingurugiroari eskainitako astean, **zuhaitz egunari buruzko marrazki txapelketa** antolatu du. Txapelketaren lehen saria, **Naiara Saenz** neskakilak, San Frantzisko Xabier ikastolako 3. mailako ikasleak eskuratu du. Hor duzue Naiara, Imanol Murua Diputatuaren eskutik saria jasotzen.

Honako hauek **Valentin Azkarraga** eta **Nati Hernandez** ditugu. Maiatzaren 27an Monterronen zibilez ezkondu ziren. Zorionak ezkonberriei.



Epelde

inpresio ona



inprimategia eta

autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa 76 27 41 BERGARA

Estatuko gazteak Parrokia garbitzen

Hil honen hasieratik Estatuko herrialde ezberdinetako zenbait gazte Arrasateko Parrokiako gangak edo bobedak, urtetan bertan pilotutako materialaz, garbitzen ari dira. Gazte hauek, Arrasaten aurten lehenengoz burutzen ari diren gazte auzolandegietan parte hartzen ari dira eta herrira beren oporraldiak igarotzera etorritakoak ditugu, nahiz eta hau ez izan oporraldiak igarotzeko normalean aukeratzen dugun era.



Lan egiteaz gain hauts ugari irentsi behar dute gazteek

Gazte auzolandegiak beste era bateko oporrak

Gazte auzolandegiak lanaren eta oporren arteko zerbait direla esan genezake. Berauetan parte hartuz, beste herrialde batzuetako jendea eta bide batez, leku desberdinak ezagutzeko aukera dago. Gazte auzolandegietan, lan bat burutzeko bildutako gazteak aurkituko ditugu, baina lana, gazteak batzeko aitzakia dela esango dugu. Arrasatekoan esaterako, lana egunean lau orduz bete behar dute, eguneko beste orduak tailer eta ekintza desberdin ugari burutzen ematen dutelarik. Ez dugu esango lanik ez dutela egiten, baina berau, gazteek amankomunean duten helburua dugu, era honetan gazteak jomuga baten inguruan bilduz. Gazte auzolandegietan hamazortzi eta hogeitabost urte bitarteko gazteek har dezakete parte eta bost mila pezeta ordaindu beharko dute izena emateko orduan.

Arrasatekoak, Eusko Jaurlaritzak Elkarte Autonomoko herri desberdinei luzatu zien aukeraren bidez antolatutako daude. Udalak, berauek antolatzea erabaki ostean, lana eta gazteentzat leku aproposa bilatu behar

gazteentzat tailer eta ekitaldi desberdinak antolatzearen ardura dute. Dagoeneko argazki eta kareta tailer batzuk antolatu dituzte.

Udalak, berriz, lanak zuzentzeko teknikaria kontratu du. Jose Luis Barrutiabengoa arrasatearra dugu berau, Aranzadi elkarteko kidea eta elizako gorabeheretan jakituna. Amandre Santa Inesen lanetan parte hartu ondoren. Bestalde, lanerako behar diren materialak, hodi, kontainerrak etab. ere Udalak jarri ditu. Horrez gain, gazteei zenbait erraztasun ere eskaini die Udalak. Era honetan, polikiroldegian dohainik sartzeko aukera izango dute edota Udalak antolatutako kultur ekintzetan.

Une honetan Arrasatera Balentzia, Murtzia, Bartzelona, Madril, Bizkaia eta Arabako hogeitahiru gazte etorri dira. Herrian hil honen hamaseira arte egongo dira, eta ondoren beste gazte txanda bat etorriko da.

Arrasaten burutzen ari diren gazte auzolandegietan ez dute herriko gazteek parte hartzeko aukera. Hala ere, beste herri batzuetan burutzen ari diren herriko hogeitabost gazte joan da. Kopuru nahiko han-

Gazte auzolandegiek, leku berriak eta kultura eta herrialde ezberdinetako jendea ezagutzeko aukera ematen dute

izan du. Labeko koban egindako lanen ondorioz, Udala jadanik, Aranzadi elkartekoekin harremanetan zegoen eta honek Parrokiako lana proposatu zuen.

Eusko Jaurlaritzak, Arrasateko gazte auzolandegiak onartu ondoren, gazteak eta monitoreak jarri ditu eta gazteen bazkariez eta asegurez arduratzen da. Monitoreak Gasteizko Sirimiri taldeko kideak ditugu eta

dia, kontutan izanda inguruko herrietatik hiru edo lau gazte baino ez dela auzolandegietara joan.

Hauexek dira lanak

Arrasateko Eliza nagusia konpontzeko, Mikel Lasa arkitektoak ikerketa sakona egiten dihardu, Elizako gangetan piloturik dagoen zaborrak, elizaren egituraren kalteak sortuko dituen beldur azaldu delarik.

Ondorioz, ganga hauek garbitzea pentsatu da. Hasiera batean lan hau Arrasateko espeleologia taldekoek eta skaut-ek egitea pentsatu zen, baina udalak gazte auzolandegiak antolatzea pentsatu zuenean, Aranzadi zientzia elkartekoek lan hau proposatu zioten.

Parrokiako gangetan pilatuta giza hezurak, teilak eta erretaula eta irudi desberdinak aurkituko ditugu. Giza-hezur hauek aintzina eliza inguruan lurperatutako arrasatearrena ditugu. Eleizak jasan dituen konponketen ondorioz, hezur hauek lurretik atera zituzten, baina saindulekutik kanpo ez ateratzearren elizako gangetara igo ziren. Bestalde elizako teilatuan egin diren erreteilu desberdinen ondorioz pilatu diren teilak, gangetan gorderik daude. Elizako ekintza desberdinetan erabili izan diren irudiak ere ganga hauek gordeta daude, eta hala 300 urtez parrokiako aldare nagusian egon zen San Juan irudia edota Aste Santutako elizinguruetan haurrek hain gustoko izaten zituzten katxoborratxoak aurkituko ditugu bertan.



Hauexek ditugu pilatutako irudi batzuk jartzen zizkietela konturatu ziren. Hau dela eta, ordurarte teilei eman ez zieten garrantzia ematen hasi ziren, etxeetan egin ziren lanen data jakiteko balio zezaketen eta. Arrasateko elizan pilaturik dagoen teila kopuru handia kontutan izanda, bertan burutu diren erreteilu desberdinen adin zehatza jakiteko aukeran daudela azaldu digu Jose Luis Barrutiabengoak, lanen arduradunak.

den hezurak, Francisco Etxebarria donostiarrak ikertuko ditu. Berauekin paleopatologi ikerketa burutzeko asmoa du, pertsona hauek jasan zituzten gaisotasun etab.en ikerketa, hain zuzen ere.

Azkenik, elizan aurkitzen diren irudiak Donostiako elizbarrutian ondarea zaintzeaz arduratzen direnak aztertuko dituzte. Oraindik ez dute han bildutako irudien balioa aztertu, baina pare bat irudik balioa izan dezaketela azaldu digu Jose Luis Barrutiabengoak, besteak beste hitezko San Juan batek. Irudi hauek hortik atera eta berriztatu egingo dituzte.

Beraz, garbiketa lan hau elizak jasango duen konpoketen hasiera baino ez da izango. Dena dela, gazte auzolandegi hauetan parte hartzen duten gazteek, elizaren gangak guztiz garbitzea ez dute lortuko, lan handia bait da berau eta hilabete batean ez dago astirik osorik burutzeko.

Parrokiako gangetan pilatuta dauden teila, giza hezur eta imagina ugarik, parrokiaren egitura honda dezakete

Ondorengo ikerketak

Material guzti hau elizatik atera ondoren, ikerketa desberdinak burutuko dira. Aranzadi elkartekoak, Nafarroan egin zituzten ikerketa batzuen ondorioz, aintzina teilagileek teilei data, sinadura eta zigiluak

Horrez gain, jasotako teilekin erakusketa antolatzeko asmoa azaldu dute. Zigilu edo marka hau ez zitzaien teila guztiei jartzen, beraz, markarik ez duten teilak bota egingo dira.

Bestalde, elizako gangetan dau-



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektroiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

UDALA


Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak


Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56



**KONTRATAK
OROKORREAN**



Foruen Enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 ARRASATE



GIPUZKOA

HERRI Irratia

Xabier Lete, "Ameriketak egitera" joaten zen garaiaren semea

Xabier Lete Altunak ez dauka zerikusirik ezagutzen dugun Leterekin, biak euskaldunak izatea ez bada. Xabierren gurasoak, izatez Mekolalde eta San Prudentziokoak, aspaldin Estatu Batuetara joan ziren, "ameriketak egitera". Orain Arrasatera etorri dira oporrak igarotzera. Penagarria Xabierrek berba egiterakoan, daukan azentu bitxia zuek entzun ahal ez izatea.

— A. P.: Kontaiguzu, Xabier, nolatan alde egin zuten zure gurasoek Estatu Batuetaraino?

— Lehenengo nire aita, Domingo Lete, bergarrara bera, Mekolaldekoa, Ameriketara joan zen bere anaia Joxemariarekin diru apur bat egitera. Itzuli eta hemen ezagutu zuen María Altuna, San Prudentzioko, Arantzazun ezkondu eta biak EE.BB.ra bueltatu ziren. Duela 37 urtetik hona Burns-en bizi dira, Oregon Estatuan. Joxemarik, ostera, bakarrik hiru urte eman zituen han. Aita artzai ibili zen, azukre fabrika baten sartu arte. Ni hiru anai-arreben artean, nagusiena naiz, eta Burns-en bizi gara, rantxo eta bakeruez betetako 5.500 biztanleko herritxoan.


— Zuen herrian euskaldun asko al dago, eta oraindik ere hizkuntza konserbatzen al duzue?

— 400en bat euskaldun gaude. Bizkaitar eta naparrak gehienak. Gure tiok hotela ipini zuen eta horra

— Zelako bizimodua daukazue han, gazteok zelan dibertitzen zarete?

— Ni lanean nago "French Glen Millwork" izeneko lantegian. Bertan molde, marko eta ateak egiten ditugu. Gure konterrian ekonomia egurra, behi eta ardietan oinarritzen da, eta guztiontzat dago lana. Ni 13 urtekin hasi nintzen lanean. Gazteok normalean 18 urtekin edo, independizatu egiten gara etxetik. Hiru edo lau lagun elkartu eta etxebizitza bat hartzen dugu errentan, oso garestia ez da, 150 \$etan hilero alokatzen bait dira. Ezkondu ere, gazte ezkontzen gara. Ni 23 urtekin, eta orain dibortziatuta nago.

Denbora librean kirol asko egiten dugu. Neguan, saskibaloia eta udan, beisbola. Arrainketan ere joaten gara eta, askotan, zerbeza mendira eroan eta bertan juergak prestatu. Han neskei 21 urte arte ez diete tabernetan sartzen uzten; eta taberna



Xabier Lete, euskaldun-amerikanua

egin dut berba. Primeran tratatu naute.

Arrasate, Eskoriatza eta Zumarragako jaietan egon naiz. Donostian, Lekeitio, Ipaster, Gomika eta Logroñon ere izan naiz, baina gehien gustatu zaidana Arrasate izan da. San Juanetan tanborrero urten nuen, eta jende denak esaten zuten: "Ese es el americano".. Oso popularra egin nintzen. San Ferminetara ere joateko asmoa daukat.

— Geldituko zinateke hemen bizitzera?

— Bai. Oso gustora. Baina semea han daukat. Derek-en tutoregoa lortzen badut, gustatuko litzaidake topatu neska euskalduna eta berarekin, hemen bizitzea. Hemen, han ez dauzkagun problema batzuk daude, lanarena, esate baterako; baina hemen jendea hobeto bizi dela uste dut.

— Neska eta mutilen arteko harremanak berdinak dira hemen eta han?

— Ez, han errezagoa da ligatzea, hemen neskak formalagoak dira. Baina han jendea oso zeloso da, eta horregatik dibortzio asko izaten dira.

— Noiz etorriko zara berriro?

— Egin ditut planak nere anaia eta beste lagun batzuekin 92an etortzeko. Baina, ahal badut, lehenago ere etorriko naiz.

"Euskadin, Oregon-en ez dauzkagun problema batzuk daude, lanarena, esaterako; baina hemen jendea hobeto bizi dela uste dut"

beti euskaldunak etortzen ziren. Horregatik konserbatu dugu hain ondo hizkuntza, eta etxean beti egiten dugu euskaraz. Nere lagun askok, ostera, gurasoak euskaldunak izanda, galdu egin dute gure hizkuntza. Nik daukadan semeari ere erakutsiko diot euskara, jakina. Derek dauka izena eta ondion bi urte besterik ez dauka.

denak 2etarako itxita daude. Burns-en ez dago gauza handirik egiteko.

— Gustatu zaizu hemengo giroa, eta San Juanak?

— Bai, gustatu zait juerga asko dagoelako. Jendea beti dago kalean, poteoan eta, gainera, oinez ibiltzen da. Han gu beti ibiltzen gara kotxean, gora eta behera. Jendea oso majua da, eta mundu guztiarekin



Arrasatear hauek buk. zuten ibilaldia

Hiru handiak

Azkenengo hiru urteetan lez, aurtan ere Manuel Iradier mendizale elkarteak antolatu zuen Hiru Haundien (Gorbeia, Anboto eta Aitzgorri) ibilaldia.

Arrasatear ugari ikusi ez arren, mustrarako lain ere bazegoela aipatu behar.

Gauerdia zen Muruatik gora abiatu zirenean Gorbeiaruntz. Gortutzak sendo eta artean ere osorik, ahalegin handi barik eramaten gintuen Gorbeixako aldapetan gora. Gaueko bostetarako heldu ginen Urkiolara eta gure erropak aldatuz gain, geure sabelak ere itxuratu ginituen aurrean zetorkigunari beldurrez edo.

Eguna iratzartzen hasi orduko Urkiolatik gora gindoazenok gehienok ginen eta zenbait lekutara antolatzaileek pentsatu aurretik heldu ginen. Goizeko 9,30etan heldu ziren lehenak gatza ingurura eta irten ahal

izan zuten bezain laster abiatu ziren Elgeatik zehar Arantzatzuko mendietara. Ez zuen jendeak deskantzatzeko astirik. Dena den, argazkian ikus daitezkeenak inongo prisa barik ibili ziren Gatzako lautadan.

Gatzatik eta Otzaurterainoko bigeari genion errespetu gehien, baina antolatzaileen ardurez ura ugari izan genuen. Asko arindu zitzaigun guztiz eguzki begia den bide hura. Azkenik Aitzgorrira heldu ginen, hemendik beste bi ordu eta, azkenik Otzaurten bukatu zen gure kalbarioa.

Datu interesgarri batzuk:

— 355 lagunek urten zuten, eta 280k bukatu.

— 27 emakume, eta 10k bukatu.

— Irteera, Muruatik, Ekainaren 24ean, gaueko 12etan.

— Bukaera, gaueko 10ak baino lehenago.

— Luzeera: 96 km.

Xabier Ozaeta

Atletismoa

Denboraldi atletikoa pil-pilean dago. Lau leku ezberdinetan aritu ziren Arrasate Kirolak taldeko atletak joan den asteburuan:

— Antrim-en (Irlanda), lurralde hau, Gales, Escocia, Chipre, Israel eta Euskadi artean mitin atletikoa izan zen. Hemen Inazio Maizbide arrasatearra egon zen, 56,44m.ko jaurtiketa bateaz, Arrasateko errekor berria, seigarren postua lortu zuelarik.

— Bordelan beste bilera bat izan zen, 22 urtetik beherakoentzat. Bertan Lorenzo Avila 100 m.etan bigarren gelditu zen, 11.20ko denboraz, Arrasateko errekorra. Pertikan Bittor Alonso bigarren gelditu zen: 4 metro.

— Getxon, Espainiako junior Txapelketa izan zen. Euskadiko selekzioarekin, Gayk hartu zuen parte, 200m.etan bigarren geldituz: 22.17.

Irunen, bestalde, San Martzial Txapelketa izan zen, 9 arrasatear bertan izan zirelarik. Aipatu Jaione Agirreuretaren beragertzea altuera jautsian.

Pilota: Arrasate-k, 3 - Aramako-k, 0

Errez nagusitu ziren Arrasateko pilotariak Aramakoen kontra, Herrien arteko XXII. Txapelketan. Kategoria guztietan irabazi zuten hemengoek, honako emaitza hauekin:

— Infantil mailan, Gonzalez - Zuazubiskar-rek, 18; Oiarbide - Olazabal-ek, 3.

— Gazte mailan, Korta - Markos-ek, 22; Gorostiza - Bendorio-k, 9.

— Senior mailan, Mujika - Korta-k, 22; Aramakoen, 16.

Bueltako partiduak igandean izango dira Ordizian, emaitza hauekin geure pilotariak klasifikazioa errez lortu behar dutelarik.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

KIROLDEGI


Jatetxea

Eguneko menua
eta
karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

podiuma

**Alberto Garai,
kirol-medikua**



"Jadanik 150 sendaketa egin ditugu pizinetan"

Alberto Garaik duela urtebete t'erditik hona Kiroldegian dihardu mediku bezala. Epe honetan datu ugari bildu ditu, zeintzuk diren Arrasateko kirolariak izaten dituzten le-siorik arruntenak esan ahal izateko. "Bi arlo bereiztu beharra dago: konpetiziozko kirola, eta kirol-ai-sialdia. Lehenengoari dagokionez, grabeagoak izaten dira, batez ere, kontaktuko kiroletan. Tendinitis eta zartadurak (esginzeak) ditugu ugar-ienak. Saskibaloiko jokalariek, zar-tadura asko sufritzen dute, baina emaitza onak ematen ditu gure lan-ak, berretura mutil batek bakarrik izan du eta. Saskibaloiko nesken artean, ostera, berretura gehiago izan dira, erreabilitazioa seriotasun gutxiarekin hartzen bait dute. Kirol-aisialdiari dagokionez, tendinitis eta periostitis dira nagusi. Hauek gainkargagatik sortzen dira. Kirola-ren teknikari buruzko ezjakintasun handia ere nabaria da: jendeak, kirola egin aurretik, ez du berotzen; ez du ekipamendu aproposik erabil-tzen; neurrik gabe egiten dute, eta entrenamenduak kopiatu egiten dira. Mantenu-kirolari dagokionez, giharre-kontrakturak dira nagusi". Zeintzuk diren le-siorik arruntenak ikusita, eta talde eta entrenadoreekin harremanetan jarrita, Albertoren lana hauek prebenitzera zuzenduko da, "zartadura ebitatzeko orkatilak indartu behar dira; eta tendinitisak, oinetakoak eta lurra zainduz, ebita daitezke".

Udan sartuta, pizina jendez josita izaten da. Eguraldi onarekin egune-

ro 2.000tik 3.000 lagun pasatzen dira bertatik. Baina, badirudi, jendea oraindik hezkuntza faltan dagoela, "harritzekoa da pizina ixten denean jendeak uzten duen zaborra ikustea Gainera, ez dituzte arauak betetzen: erropa, bokatak...sartzen dituzte eta debekatuta dago. Ez dute txankletarik erabiltzen; brontzeatu ondoren, uretara duxatu barik sar-tzen dira etab." Istripuei dagokienez, "4 astetan 150 senda-dura egin ditugu. Gehienak, ebakun-tzak eta azalaren erredurak izaten dira".

Albertok eskolaurrekoekin ere egiten du lan, eta akats ugari ikusten du arlo honetan, "gorputz-hezkun-tzari oraindik ez zaio behar den gar-rantzia ematen eskoletan. Eta niri zerak arduratzen nau: umeak OHO-ko 3. mailatik kirol espezifikoko batean hasten dira eta hau astakeri itzela da. Umeak, hain gaztetatik futbo-lean edo pilotan bakarrik hasten badira gorputzaren alde bat baka-rrik garatzen dute. Honengatik biz-karrezur desbideraketak edo des-proporzioak ere sortzen dira".

Trialsin: Ot Pi katalaniarra txapel-dun

Harrakastatsutat jo daiteke joan den astebukaeran Arantzazun izan-dako trialsin txapelketa. Hamar ka-tegoriatan banatuta, 18 lurraldeko 80 txirindulari trebetsuk hartu zu-ten parte. Elitezko kategorian Ot Pi katalana erraz nagusitu zen. Pi Munduko txapelketarako faboritoa da. Beste kategoriei dagokienez, aipatu Javi Calleja oinatiarraren garaipena kadete mailan

Leintz Bailarako II. itzulia

Besaide-k antolatu du igandera-ko, bigarren aldiz, Leintz Bailarako Itzulia. Irteera 7etan izango da Por-taloitik, eta honako hau, ibilaldia: Arrasate - Untzilla - Kruzeta - Ar-laban - Amusatagi - Degurixa - Urku-lu - Bedoña - Arrasate. Antolatzai-leek honako denbora partzial hauek aurrikusi dituzte: Arrasate - Kruze-ta: 2-3 ordu; Kruzeta - Arlaban: 2-3 ordu; Arlaban - Leitzargarate: 1,30-2; Leitzargarate - Urkulu: 2,30-3,30; Urkulu - Arrasate: 1,15-1,45.

Ziklismoa: Arrasate Kirolak-ek denboraldia bukatu

Joane den astebukaeran bukatu zen Bergaran denboraldia Arrasate Kirolak taldearentzat. Oso emaitza bikainak eman ditu aurtengoak, ga-raipen ugari lortu bait dira. Bergaran garaipenik ez zen izan, baina biga-rren postuak lortu ziren hiru katego-rietan: Hasierako mailan, Oier Gar-ro; Alebin mailan, Mikel Roldan; eta infantil mailan, Angel Sanchez.


Denborapasen soluzioak

Jeroglifikus

Libian. L-I-2 A-N

Hiztegia lantzen

Mandioa= Teilatupean egon ohi den etxeko gorenengo alde



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako orde-zko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

Memesa

79 42 22

Fusio hotza: fusio nuklearraren alde onak eta oztopoak

Aurreko alean, Fusio nuklearra oso energia iturri ahaldua izateaz gain, Hidrogenoa erregai genuen. Gaurkoan bere alde onak eta txarrak, eta fusio erreakzioa sortzeko dauden eragozpenak agertuko ditugu.

Fisikoek diotenez, energi iturri hau garbia eta merkea izango litzateke, garbitasun hori erlatibo izanez, erreakzio honek, neutroiak askatzerakoan, radioaktibitate maila behea sortzen duelako. Baina Fusioaren aurrean, beste alde ona zera da: fusioak ezin du kontrolgabe jarraitu. Beste energia sortzeko moduen aurrean aipatzekoa ere, "berotegi" efektua eta "euri azidoa" (zentral termikoak) eragiten dituzten gasen sorpenaren eza eta zabortege nuklearren desagerpena. Bestalde, nazio guztiek izango lukete bere jatorrizko erregaia (Hidrogenoa), munduko soziopolitika banaketa zeharo aldatuz.

Dena den, Fusio nuklearra burutzea oso zaila denez, urrun ikusten da energi mota honen erabilpen ko-

mertziala. Erreakzioa lortzeko, Hidrogeno nukleoek bi baldintza bete beharko dituztela uste izan da beti: abiadura haundiarekin mugitu eta gertu gertuan egon. Lehenengo baldintza betetzeko, temperatura 100 milioi gradutara jasotzean (ia sei aldiz eguzkiaren erdian dagoen temperatura), laserra ala fusio nuklearra erabil daiteke. Bestea lortzeko, berriz, laserra ala indar magnetiko itzelak erabili izan dira, bide batez horrelako tenperaturan dagoen masa (plasma), ontziaren hormetatik urrundu araziz. Baldintza hauen beharrendak jatorria, nukleoak zenbat eta hurbilago, are eta indar aldaratzaile handiagoak sortzen dituztelako.

Gizakumeak dituen eragozpenak ez dute esan nahi erreakzioa burutu ezin daitekeenik. Izan ere, izadian adibide garbia dugu: izarren eta eguzkiaren energi iturria, hain zuzen. Bestalde, orain arte Lurrean guztiz lortutako fusio nuklear bakarra, Hidrogeno bomba da. Kasu

honetan, fusioa gertatzeko beharrezko beroa, bomba atomiko arrunt baten leherketaz lortzen da.

Gaur egun burutzen diren saiakuntzetan, baldintza hauek betetzeko erabiltzen den energia, lortzen dena baino handiagoa da. Adibide garbia, Estatu Batuek fusioa sortzeko erabiltzen duten makina (Tokamak) dugu. Bertan lortzen den energia, erreakzioa emateko behar den energiaren %50a da. Hau dela eta, 1997. urterarte, ez da hasieran behar den energia konpenzatzea espero. Hala eta guztiz ere, baikorrenek ere ez dute 2030. urtea baino lehenago horrelako makina industrialik ikusteko itxaropenik.

Baina hara eta non, Fusio hotza agertzen zaigula. Bere garapena, saiakuntza hauen amaiera izango litzateke, Fusio hotzaren aldea, datorren alean agertuko dugunez, gela baten izaten ohi diren tenperaturetan erreakzioa burutzea bait da.

Iñaki Aranburu

AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana
Frantsesa
Ingelesa

89 - 90 Ikasturtea

Bulego

Matrikula

Ordutegia:

epea
zabalik

4etatik 8etara

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

ARRASATE PRESS astero zuekin



ERAÑA

AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95


ARRASATE

FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO ZENTRUAK

Kurtsoaren amaiera Irailean eta Urrian gero
berriro hasteko

OPORRAK ONDO IGARO DITZAZUELA

Erdiko kale 79 19 37



Ferrerías 79 87 62

Prince

Lizuna, milenioko pertsonaia, pizti pornografikoa eta etorkizuneko musikaren aintzindaria dira Princerri egotzi zaizkion kalifikatiboen adar batean. Goraipatua, mirestua eta gorrotatua, Prince egungo musikari gorenekoen artean kokatu da eta izen mitiko bilakatzeko zorian dago.

Estatu Batuetako Minneapolisen jaio zen Prince Rogers Nelson, 1957an, aita eta ama musikari ziren sendi batean. Umetandik pianoa eta kitarra jotzen ikasi zuen, eta beraren musikarako senak bultzaturik, 27 musika-tresna ezberdin jotzeko gai izatera iritsi da. Hain zuzen ere, Princen lehen bi diskoetan bera da konposatzaile, musikajole, produzitzaile eta kantari bakarra. Modu horretan lortu zuen hasiera-hasieratik produktuaren erantzule bakarra izatea, show-businessaren besarkada itogarriaren erori gabe. Joera honek eramango zuen geroago beraren diskaetxea sortzera -Paisley Park- eta beraren bizitza pribatua misterio urraezin bihurtzea.

Princen musikak iturri anitzetik edaten du, hala nola soul, jazz, funky, rhythm and blues, pop eta rock, besteak beste. Baina Princen lana ez da mugatzen osagai horiek nahasketak egitera. Aitzitik, osagai ezagunekin emaitza berriak lortzen ditu, bide ezezagunak urratuz, atzetik datozenek landu ditzaten bide horiek.

Bestalde, egia da Princek eskandalua piztu duela, behin eta berriz, eta ezin esan lan hori gogoko izan ez duenik. Abestien hitz lizunak, diskoen azaletan erakutsi dituen itxurak edota zuzeneko emanaldietan azaldu dituen jarrerak zenbaiten mespreztua eta gorrotoa ekarri diote. Zentsurarekin ere hainbat arazo izan du, eta beraren izenaren inguruan debekua eta pekatuaren morboa sortu dira. Agian, gozoki ona saltzeko ganean jartzen zaion paper tentagarriaren antzera.

Baina estaldura kentzean musikari handia aurki daiteke Princengan. Ahots deigarria, falsetea maiz erabiltzen duena eta koroak egitean enpate zoragarriak lortzen dituena. Doinuak ez dira beti puntakoak baina Princek maisuki jazten ditu, emaitza borobilak lortu arte. Eta disko bakoitzean benetako aurkikuntzak, musikaren bilakae-rarako zirrikitu berriak.

Lizunkeria eta pornografiatik at, orainaren eta geroaren arteko zubia egiten ari den musikaria.

Mikel Irizar

DISKAGINTZA

- For you, 1987
- Prince, 1979
- Dirty mind, 1980
- Controversy, 1981
- 1999, 1982
- Purple rain 1984
- Around the world in the day, 1985
- Parade, 1986
- Sing of the times, 1986
- The black album, 1987
- Lovesexy, 1988

AUTOEDIZIOARI BURUZKO IKASTAROA



Arrasateko IMk autoedizioari buruzko ikastaro bat antolatu du **Uztailaren 17tik 28ra bitartean, arratsaldeko 4etatik 8etara.**

Bertan parte hartu nahi duten guztiek **Uztailaren 14a** baino lehen eman behar dute izena, IMIn eman ere.

Ikastaroaren egitaraua honako hau da:

- Page Maker: Hastapena
- Orrialdea diseinatzea
- Testuak eta grafikoak
- Inprimaketa

Kanoi

Boutique

50eko BEHERAPENAK

IBARRA Garajea S.A



garajea **EBRO**
 Automobil- **NISSAN**
 konponketa
 Garabi zerbitzua
 Azeri kalea, 5 Tfnoa: 79 12 61
 ARRASATE

Entsalada freskoak San Juan jaiak eta gero

San Juan Jaiak pasatu berri ditugu eta gure artean ohitura denez gehienok jan eta edan ugari egingo genuen seguru asko. Sabelak arintzeko gaurkoan barazkiak aukeratu ditugu gure errezeten osagai bezala.

Ea ba modu honetan gure gorpuztari oporraldi bat ematen diogun.

Bi entsalada mota aukeratu ditugu: hotza bata, epela bestea.

ENTSALADA FRESKOA

Osagaiak: letxua
tomatea
aguakatea

Aragoiko azeituna beltzak

Erremolatxa gorri egosia

txanpinoi gordinak

gazta freskoa

olioa, gatza eta ozpina

Erremolatxa egosi eta hozten

utziko dugu. Ondoren mehe ebagita ipiniko dugu, baita txanpinoi gordinak, gazta freskoa eta aguakatea ere.

Letxua, tomatea eta azeitunak ohitura den erara jarri eta beste osagai guztiekin nahastuko ditugu.

Norberak ikusiko du gatza, olioa eta ozpinaren neurria.

Aurreko hau sarritan prestatu eta jan badugu ere, hurrengo datorren hau ez dugu sekula probatu. Hala eta guztiz ere, zuen gustokoa izango den itxaropenaz aurkezten dizuegu.

BOGABANTE ENTSALADA

Lau lagunentzako osagaiak: libra bat leka

200 gramu abakandoa(edo antzekoren bat)

txanpinoi apur batzu

perrejila

piper beltza
olioa, gatza eta ozpina.

Lekak garbitu. Ura irakiten jarri, orduan lekak eta gatz pittin bat bota, irakina galdu gabe. Su bizian eta ahal denik eta denbora gutxienean egosi. Egosi bezain laster ura kendu eta azpil batetan zabaldu.

Piper beltza gainetik bota. Olioa eta ozpina nahastu eta gainetik bota.

Abakandoa (Bogabantea) pusketeta sendo samarretan zatitu eta leken gainean ipini.

Txanpinoiak garbitu eta gordinik mehe mehe ebagi eta perrejilarekin batera guztiari gainetik ezarri.

Oharra: entsalada honetan hobe lekak epel samar jartzea.

Bat edo bat gertaketan animatzen bada, gu behintzat prest gaude probetan joateko.

Morokil taldea



omni mosaikoak

Zeramika-Erakusketa: Otalora lean

Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28-B Tfnoa: 79 08 70 ARRASATE

I
R
A
T
I

Ferrerias kalea

Tfnoa: 79 71 80

ANDERE

Bainu eta
sukaldeko

ALTZARIAK

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

*Sukaldeko altzariak neurrira egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektratresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurrira ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.

*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

ECUADOR

Kontzesifno 2, Tfnoa: 79 14 06

Gaixotasun kardiobaskularrak (II)

Joan den astean esaten genuen gaixotasun kardiobaskularrak eta arteriosklerosia batez ere, gure gizartean, beste edozein herri aurreratuetan bezala, herioaren lehenengo zergatia dugula. Era berean esaten genuen gaitz hau ez dela bat batean agertzen, gaztarotik aurrera pixkanaka sortzen doala eta hiperkolesterolemia, loditasuna, sendentaris-moa,... duten pertsonengan sortzen dela, hau da, arrisku faktore hauek duten pertsonengan. Arrisku faktore hauek elkaturik, arteriosklerosia jasateko probabilitateak biderkatzen dira.

Faktore horietako bi, hiru edo gehiago dituzten pertsonak arrisku haundiagoa dute, faktore bat bakarrik dutenek baino. Eta asko dira faktore horietako bat baino gehiago duten pertsonak, maiz gertatzen baita hipertentsio batek pisu gehiegi izatea eta era berean, kolesterolaren neurria. Horregatik, gaitz honen prebentzioa arrisku faktore horien

aurka jokatzetik hasten da.

Kolesterola jeisten bada, tentsio arterialaren kopurua normaltasunean mantendu, pisua gutxitu, zigarroak erretzeari utzi edo bere kontsumoa gutxitu... garun-tronbosia infartua, bularreko angina nabarmenki gutxitzen direla frogaturik dago.


Badira, bizimodu aszetikoa eta gabetasunez betea derrigorrezko ikusten dutenak. Huaza, (letxuga), tomatea, ura, kilometro mordoxka bat korrika egin beharra, tabakorik ez, ezta alkoholik ere; bainan hau ez da horrela, moderazioaren moderazioz eginez gero.

Aparteko kasu batzutan ezik, denetik jan daiteke, baina hori bai neurri egokian, ariketa pizka bat egitea nahikoa da, alkohol pizka bat hartzea ez dago gaizki eta zigarrotxoaren bat egunean, zergatik ez? Plazer txiki hauetaz gosatzea posible da; neurria, moderazioa, hortxe dugu gakoa.

Uda hasten da eta garai ona dela

iruditzen zaigu gure bizimoduan aldaketa batzuk egiteko. Horregatik, hurrengo asteetan kolesterola eta tentsio arteriala arrisku gabeko neurrian nola mantendu, pisu egokia nola lortu... aholku batzuk emango dizkizuegu, guzti hau lortzeko. Prebentzioa bai, bainan sakrifizio handirik eta bat bateko aldaketarik gabe gainera.

ARTERIOSKLEROSIS GAITZAREN KOPURUA



Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso

RI Compatible ONKYO Cassette Deck
RI Compatible ONKYO CD Player
ONKYO Tuner Amplifier (TX-850, TX-830)

Connecting cable for RI
Audio signal cable

Remote Control Included with TX-850/TX-830

Hau
zer den
jakitea nahi
ba duzu
etor zaitez
gurera

ERESI

Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

LAMIAK

Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**empresa
bazkariak
eta
famili bilerak**

Mendiko bizikletaren "hariak"

Jakin badakigu bizikleta gehienak Ameriketara (EEBN) eta Japonen egiten direna.

Dena den, gaur egunean, Euskal-Herrian bertan modelo-gama handia aurkitzeko aukera daukagu: ORBEA (Cervino eta Sherpa markak), RAZESA, BH (Supra Campagnolo Rally, Supra Shimano Deore XTII), PEUGEOT (marka asko duena), MBK (Ranger, Tracker, Aventure, Baroudeur), KUWAHARA, MUDDY FOX...

Denak aitatzea gehiegizkoa denez, gutxi batzu hauek erreferentzia txiki bat hartzeko balio dute.

Dena den, bizikleta konpetitiboena edo, atzerrian egiten dira: Japonen egin eta gero EEBN saltzeko.

Akzesorioak

Garrantzitsuenak balaztak (fre-noak): ziklokrossean erabiltzen dituzten kopia dira. Atzekaldean goian zein behean joan daitezke. Go-



mazkoak edo bereziak izan daitezke. Gurpilak ateratzeko sistema erraza du eta sakatu edo estutzeko ere erraz.

Hurrengo, aldagailuak: gaur egunean modan eta sinkronizatuak direlako, Shimano markakoak: 3 plater eta 6 piñoi. Zoragarria ondo aldatzen ez badakizu. Normalean piñoiak neurri hauek dituzte: 14etik 32ra, Platerak: 28, 38, 48.

Pedalak: lisoak badaude ere, gehienek aginak dituzte aldatsetan eta ondo ebaketako.

Gurpilak: Mota asko aurki-

dezakegu, estuak eta zabalak, lisoak eta taku handikoak. Prezioak ere zerikusi handia du.

Eta azkenik eskeletoa (bizkarrezurra)-kuadroa. Materialaren arabera ordaindu beharko dena. Modelotik modelora ez dago alde handirik.

Eskulekua: gaur egunean etxe gehienek lisoak eta zuzenak egiten dituzte.

Ikus dezakezuenez, berezitasun gutxi duen bizikleta baina, era berean, dimentsio eta neurri ezberdianak dituena.

Bitxikeriak

(IFMA) Colonia-ko erakustazokan guztiz berria den mendiko bizikleta bat agertu da: karbono eta beira-fibraz egindako kuadroa. Ez da bakarria baina egitura arraroa du oso. Gainera, atzekaldean suspentsioaz doan bertsioa dago, amortiguadore eta guzti.

K. U.

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

M A

ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkaia 1, Tfnoa: 79 08 07
Aretxabaleta

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABALETA

**ERAIKUNTZAK
ETA
BERRIZTAPENAK**

BENGOA

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 94
ARRASATE

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



ARRASATEKO UDALAK

lanpostu hau bete behar du

A P A R E J A D O R E A

Deialdia arautzen duten oinarriak
(Ekainaren 27ko G.A.O.ean argitaratuak) Udaletxean jaso daitezke.

Eskabideak aurkezteko epea Uztailaren 19an amaituko da

Arrasaten, 1989ko Uztailaren 4ean

ALKATEA



IRAKASLE ESKOLA

IRAKASLE ESKOLA. ESKORIATZA

*1989-1990 aurreinskripzio-epea luzatu egiten da uz-
tailak 28 arte.*

*Eskola honek, harrera barruan, **Magisteritza** eta
EGA tituluez gain, **Kontsumo** eta **Soziolinguistika**
arlotan ere diploma berezia lortzeko aukera eskeint-
zen du.*

Informazioa: Irakasle Eskola
Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943-79 04 40

BATZOKIA

jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE

X. GOROSARRI eta M. L. TROJAOLA

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

Erreumatismo handigarriak (erreuma-artritis, espondiloartritis,
lupusa, hezueria...) Hezurretako gaixotasunak (Osteroporosia,
osteomalacia, pagets) Artrosia, lumbagoeriak, ziatikak,
garondoeria, etab...

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxebea. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

EPELDE

Argazki

denda

Iturriotz 24

FELIPE

MADINA

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE 79 13 78

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

NABE INDUSTRIALEN

SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.


*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



LIZARRALDE

KIROLAK

**Deba Garaiko
txirrindularien
denda**

Zure denda

San Lorenzo 1 Tfnoa: 78 29 86 OÑATI

Famauen ahotik



Trankil egoteko moruen gazak, honeik eingo jittuek lanak eta...

Apotaztik Mondraura

Apotzako "Txarrualde" baserri-xen jaixue nok, han 6 hillebete ein eta Ofietiko San Pedro auzora, handik Mondraueko "Mentu"enera, Zarugaldera hurrengo, gero aitte difuntuek oin bizi garen etxie ein juan eta harrazkero hementxe, Marko-etxebarrin

Fabrikie itxi eta ofiziue ikesten

Ugartenien lanien nabillan eta goix baten Agustin Torre ezautu naixuan. Zarugalden errementai ikesten abillela eta, ze lan eitten auen ikusten juen nitzuan. Hurrengo egunien Tomas difuntuek abixue bieldu jutzan berakin: Ofiziue ikasi gure banauen juateko, goixeko 7etan hasten ziela eta armosue eta eguneko 13 erriel emungu euztela.

Aittei esan nutzan eta konforme. Halan hasi nitzuan fabrikie itxi eta errementai ikesten.

Laister, ikessittekue desmostrau bierra

Bai, egun baten Gatzako baserri-tar bat etorri zuan egurrezko listoekin einddeko maketatxo batekin eta mesedez atslderako eitteko.

Tomas ohien jauan pulmoni-

BIXENTE BARANDIARAN "MENTU";

77 urteaz be "Tiriki tauki tauki mailluaren hotsa"

BAI ABILLIDADIE ESKUETAN

Gauza bat jaukek honek ona, esku bixekin ezker-eskuma berdin manejetan dauela maillue.

Iosu Otadui (Jesus Herrero)

xiaz eta Torre Soldau fanik. Neuk ein bier izen naixuan Gatzararren lanoi.

Akabautakuen erakutsi nutzan Tomasi eta edarto-edarto eindde auela, eta honek orduen andriei: "Trankil egoteko moruen nau horrek eingo dittu lanak eta"

Soldautzara arteko denporie han emun naixuan.

Bittoixera errementtai

Soldautzatik etorri barri eta "Herrador" betenaixuek esan jutzan:

Bitorixetik betenaixo batek deittu juztek, perratzailie bier duela eta juen gure badok... Hartu seiñok eta juen nitzuan; "Portal del Rey" Romaldo Erauskin.

Ein jittuak bi egun probarako lanien eta 8 pta emungo euztela eguneko. "Mire usté, yo por 8 pts no salgo de casa" esan eta alde ein naixuan. Hillebetera beste abixu bat. Juanok eta allegau orduko beste batekin lanien ipini nindduan, eta ugezaboi katalejuekin urrifetik lana zelan eitten nauen begire. Han ein naixuan bestiorrekin batera gerrie urten artekue, zaldi, behi, asto, mando eta suertetan zan guztiei perretan.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Munduko nagirik haundifia be plazentziarra zan. Karakolzale amorratua bera. Behin, karakoletara joan zan baten zazpi karakol ikusi zittuan eta bost harrapau. Bik iges.

Behin taillerrian biharrian zebilela bere pareko argixa erre jakon. Ekulondua domu gainian jarri, eku-billa okotzian, eta geldi. Laster entzun zeban uhezabaren diarra.

— Zer, eztaok ezer eitteko asmorik, ala?

— Argi barik nago.

— Ba alper usaiñok kenduta mogidu hari, ia bonbillia erreta dagon ala zer!

— Ez naiz baiñia bonbillara ailegatzen.

— Hori be bajuau memeluo ha-lakuoi! Igo hari nere bizkarrera. Igo zeban alperren erregiak uhezabaren bizkar gaiñera eta esan zeban.

— Erreta dago. —Eta geldi geldi geratu zan bonbillia eskuan hartuta.

— Zeri begira hago? Soltaik pa soltau!

— Baiñia harixan dago.

— Eta zer?

— Ba soltauko bada zeuk bueltak emoteko zaif nago.

"Eztenkadak" tik moldatua

■ ■ ■ ■ ■

Nota txarrak ekarri zittuan muti-kuak eskolatik eta aittak hasarre:

— Ba zer egingo dok hik azpada-kik eskribatzen?


— Ba, igual jata, telefonua joko dot!

Juan Martin Elexpuru

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886 ARRASATE



Portaloia

Hemendixe aterako ziren takarradan Joanikote eta Presebal, beste oinaztar batzuekin nahasian, ganboatar maltzurrek setiaturik zeukaten Mondragoeko hiribilduari su eman ziotenean. Herri barruko kale artean ez kiskaltzearren, ihesari eman behar izan zioten; ez ziren, ordea, oso urrutira heldu, beharaxeago zegoen Madalena erreblean harrapatu eta hil egin baitzituzten. Kontu hauek ez dira atzo goizekoak, jakina, XV. mendearen erdi aldekoak baizik. Ahaide Nagusien arteko ezinikusiak eta gorrotoak makina bat halako borroka eta ezbehar sortarazi zuten sasoi hartan; Arrasateko pasadizo hau ez zen nonbait makalenetakoa izan, orduko kanta zahar hunkigarri batetan haren oihartzuna geratu baitzaigu. Erreketa ospetsu hau 1.448ko Ekainaren 23an gertatu zen: a zer nolako San Juan sua urte hartakoa!

Jerardo Elortza

—Joan den asteko irabazlea—

Unai Bergaretxe, arrasatearra.
 ("San Juanetako dantzaldiak Biteri aparkalekuan ospatu ziren")

Egundoko **Walk-mana**

-VIGURI Bideo Klubak emana-

eskuratu nahi baduzu,

aste honetan bertan

postala bidali gure helbidera,

erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:

Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate



...eta gainera

VIGURIk

hilaren bukaeran

14'ko koloretako

ITT NOKIA markako TELEBISTA BAT

zozkatuko du hileko parte hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

• **ALDAI-GAIN** •
90 m²

3 gela
Egongela 1
2 bainu
Sukalde ekipatua
Terraza
Berokuntza zentrala,
ur-zerbitzu zentrala
Garajea
• Ganbara •

• **ARIMA ZURI** •
Apartamentua 62 m²

2 gela
Egongela ekipatu 1
Bainu 1
Sukalde ekipatua
Terraza
Urezko berokuntza elektrikoa
Termo ur beroa
Ganbara
TB. atezain automatikoa

• **ERDIALDEAN** •
115 m²

4 gela
Egon gela 1
2 bainu
Sukalde ekipatua
Terraza
Berokuntza zentrala,
ur-zerbitzu zentrala
Garajea
Erropa indibidualako
hedagunea

• **MUNARALDEA** •
87 m²

3 gela
Egon gela 1
2 bainu
Sukalde ekipatua
Terraza
Berokuntza zentrala,
ur-zerbitzu zentrala
Garajea
• Ganbara •

• **ERDIALDEAN** •
lokala

Bulegoa estudio, kon-
sultategi, ilemoztegi
edo antzerakoentzat.
100 m²
Alde bietan lehioak
kanpora begira

• **ARAMAIONA** •
Lokala alokatzen
127 m²

• **BERGARA** •
Merkatal lokalak
Garajeak

• **ERDI-ALDEA** •
60 m²

3 gela
Egongela bat
Bainu bat
Sukaldea

• **MERKATAL LOKALAK** •

Ferrerias kalea 94 m²
Ferrerias kalea 65 m²
Olarte kalea 120 m²
Iturriotz kalea 30 m²
• Erdiko kalea 95 m² •

• **ESKU ALDATU** •

Erdialdean 97 m²
Uribe auzoan 35 m²
Azkoitian Taberna bat

• **BASERRIA** •
Gezalibar auzoa

Planta bakoitzak 460 m². (2 planta)
Ganbara
4,5 Lur Ha.

• **MEDITERRANEO** •

CUNIT	(Tarragona)
CALAFELL	"
TORREDEMBARRA	"
ALTAFULLA	"
SALOU-LA PINEDA	"
PEÑISCOLA	(Castellón)
BENIDORM	(Alicante)
CALPE	"
TORREVIEJA	"
BENALMADENA	(Malaga)
MARBELLA	"
SOTOGRADE	"
• CALAHONDA	" •

• **DONOSTIA** •

Etxebizitzak
ALDE ZAHARRA
100 m² 22.000.000 Pta.
135 m² 17.300.000 Pta.
42 m² 7.800.000 Pta.
106 m² 19.400.000 Pta.
AMARA
95 m² 22.600.000 Pta.
95 m² 18.500.000 Pta.
80 m² 16.500.000 Pta.
115 m² 16.500.000 Pta.

ETA DONOSTIAKO

• **BESTE ZONA BATZUETAN** •

• **PABILOIAK** •

BEASAIN
Pabiloi berriak
Neurri desberdinetakoak
51.000 Pta. m2 aurrera
ARAIA
Pabiloia
410 m²

• **SKI** •

Canfrak-Estación
Apartamentuak Duples
6.500.000 pta.tik



Anboto

ADI!!!

ANBOTO Agentzia Inmobiliaria-
ren Zerbitzuak, hau da, Finantza-
rioak, Juridikoak, Fiskalak, eta beste-
lako Zerbitzu Inmobiliarioak, AGEN-
TE DE LA PROPIEDAD INMOBO-
LIARIA Kolegioaren babespean es-
kaintzen dira.

Etzazu onartu, ezta Komisorik or-
daindu ere, guk ematen dugun zerbi-
tzu eta lege-babesa ematen ez duen
bestelako eskaintzarik.

INBERTSIOAK

Goi-mailako arriskurik gabeko
errentagarritasuna lortu nahi ba-
duzu...


ZURETZAKO AUKERA
EZIN HOBEA DAUKAGU

ZATOZ ETA ZURE
NEURRIKO INBERTSIOA
ESKAINIKO DIZUGU

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

F. Vicente Fraile Medina Inmueble jabegoaren Agentea
Iturriotz kalea 11. Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE


Uda alferra badator eta, baduzu zer irakurri




Udaldiko bero, erropa gutxi-tze eta atsedena gehitzea hurbil dauzkagularik, hona liburu gomendio zabala, hondartzan, urtegiaren zein mendian lasai lasai eta patxadan irakurtzeko modukoak. Gusto guztietarako ekarri nahi izan ditugu: nobela, ipuina, poesia eta saiakera eta; irakurtzeko erraz-zailtasun desberdinetakoak ere bai. Iñaki Zabaletaren *110. Street-eko geltokia*, "nobela beltza" deitu ohi diren horietakoa, giro hiritar amerika-



rean kokaturik, tentsio eta kasualitatez beteriko istorio erakargarria; burua larregi berotu barik leitzeko modukoa eta euskaraz irakurtzeko ohitura eskasa dutenentzat aproposa. Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuaren gomendioa berandu samar helduko zaio askori. Baina, hala ere, ez da soberan izango bere literatur balioak eta hizkeraren samur aberastasuna gogoraraztea. M^a Jose



Kerejetaren *Ezezagun Baten Kuadernoa* poesi liburu interesgarria dugu, poesia gaztea eta ausarta, egunerokotasunaren bidetik modernotasunaren bila abiatua. Eta azkeneko utzi dugu serioagotzat edo jo dezakegun irakurketa: A. Villananten *Euskararen auzia*: euskararen normalizazio prozesuaren iragana, gaurko egoera eta etorkizunari buruzko gogoeta bilduma, era ulerkor, arin eta interesgarrian adierazia.



G. M

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak
Azaletiko alergia

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29. 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

■ **Uda ETBn:** Kirolak, kultura, festak, filmeak eta errepikapenak. Hona hemen ETBren Udako programazioa labur bilduta. Ihorretako arduradunek jakitera eman digutenez, kirol ugari izango dugu pantailetan: Wimbledon, Teresa Herrera, estropadak, pilota partiduak, txirrindularitza... eta itsas-kiroltzaleentzat *Kirolez blai* saio berria.

Donostiako Jazzaldia eta Zinemaldia izango dira kultur ekitalderik nagusienetakoak ETBn. Musika arloan, oster, *Rockabero* eta *Jazzkena*.

Jai giroan saioak herrietako festen berri emango digun bitartean, noizbehinka ETBk berak programa bereziak egingo ditu jaien inguruan. Platoa hartu eta jaietan dauden zenbait herritako plazetan jarri, 90 minutu iraungo duen *Plazarik plaza* saio berria emah asmoz. Larunbat gauetan, Uztaillaren 22tik aurrera.

“Urrezko filmak”, hau da, filme klasiko zahar andana ere iragarri digute, tartean De Sicaren *Bizikleta Lapurra*, Welles-en *Macbeth* eta Rosellinaren *Gora Italia*.

Hain distiratsua ez den aurpegia, errepikapenena da, udaro gertatzen dena, bestalde. *Perry Mason*, *La Traka*, *Gillen Tell* eta *Robin Hood* gure pantailotan zehar pasatuko dira beste behin.

Joandako programen artean, *Laino guztien azpitik*, *Katu kale*, *Ez-baian*, *Fahrenheit*, *Funtzioa*... Itzuliko ote dira inoiz?

■ **Estatuko irratia eta euskara:** Aldizkari espezializatu batean irakurri ahal izan dudanez, Estatu mailako irratikate handiak sekulako pausak ematen ari dira bai Katalunian eta baita Galizian ere, albiste zerbitzuak bertako hizkuntzetan emateko.

Katalunian SER, COPE eta RNE kateek erabat katalanez egindako albistegiak dituzte. R-4 eta R-5en *Radiodiari*, COPEren *Informatiu Migdia* eta SERen *Noticias a las dues*, *Catalunya set* eta *Matinal*. Galizian COPEk *Galiza en sintesi*, eguneroko informazio saioa egiten du. SERek *O campo galego* irratsaioari ekin dio eta RNEk *Galiza as 8:30, 13:30 y 19:30* emeten du 4.katean, boskarrenean lurraldeetako informatiboak emanez.

Euskal Herrian, berriz, aipatu kateetatik COPEk, Loiola, Donostia eta Bilboko Herri Irratien bidez egiten duen apurretik kanpo, basamortu gorria. Inor gutxi kexatu da oraingoz, hala ere.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Amodiozko hiru istorio**, ostiralean, hilak 7, 22, 15etan. ETBk ekoizten duen lehen dramatikoak dugu hau. Chejov-en hiru errelatoretan oinarrituta. Honako hauek dira istorioen tituluak: Ezkontzeko eskaera, Derigorrez dramatikoak eta Artza. Errelatoak Luis Iturri, lanaren zuzendari artistikoak moldatu ditu. Obra honetan Aitzpea Goenaga, Antonio Ruperez, Koke Sanchez eta Lander Iglesias aktore eta aktoresek hartzen dute parte.

■ **Funtzioa**, ostiralean, hilak 7, 21, 00etan. Azken programak, orain arte Funtzioan izan diren momenturik onenak gogorazteko balioko du. Honetaz gain, Lau aktuazio: Lizarrako dultzaineroak, Idoia Arteaga kantaria, “La sonora candela” saltsa-taldea eta “Cobaya” antzerki-taldea.

■ **Macbeth**, ostegunean, hilak 13, 22, 20etan. Zuzendaria: Orson Welles. Antzezleak: Orson Welles, Jeanette Nolan, Donald O’Herliky. Macbeth-ek Escociako erregea hil zuenetik bere tronoa kentzeko ez du egun baketsurik izan. Aladurek eta erruduntasunaren sentimenduek oinazeztatzen dute. Argikuleen profeziek ere ez diote lasaitasunik ematen.

bideoak



Goonietarrak: Steven Spielbergen ohizko istorioak gustatzen bazaizkizue, hauxe duzue horietakoak.

“Goonietarrak” gazte talde bat da eta beren lagunarteko azken goiza pasatzen ari dira, triste samar, makinak auzunea deuseztera datoz eta. XVII. mendeko pirata baten mapa aurkituko dute eta beren etxeak salbatzeko baliagarria izango zaien altxorren bila abiatuko.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)


Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Jeroglifikus



Non egon zara oporretan?

(Soluzioak 19. orrialdean)

Hiztegia lantzen

MANDIOA:

- A) Ohea jazteko erabiltzen den ohiala
- B) Astoa eta behorra edota asteme eta zaldia gurutzatetik datorren aberea.
- C) Enkargua.
- D) Teilatupean egon ohi den etxeke gorenengo alde.

Mokordo

Horoskopoa



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Zaindu ondo bihotza, Cupido zure atzetik dabil eta. Ustekabean harrapatzen bazaitu, zure bizitza hankaz gora jar dezake. Eta abisatu gabe.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Afariak direla, jaiak direla diru gehiegi gastatzen ari zara, baina dirua ez da izan behar zure kexka nagusia. Hainbeste kalkulorik ez egin.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Ahalik eta diru gehien aurreratzea komeniko litzaizuke, oporretarako beharko duzu eta. Bestalde, zure gorputza mugimendu eske dabil. Emaiozu!



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Zortea zure ondoan dago, lotoa egin beharko zenuke. Momentu onak aprobetxatu, txarrak konturatu gabe azaltzen dira eta.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Dauzkazun aukerei probetxurik ateratzen ez badakizu, ikasten hasi beharko zenuke, denbora gutxi barru izugarritzko eskaintza egingo dizute eta.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Parranda gehiegi egiten ari zara. Udako gauak zoragarriak izan arren, ez da beharrezkoa egunero gau-pasa egitea. Gorde indarrak, oraindik Uda luzea da eta.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Etxekoek eskertuko dizute haien alde egin duzuna eta zuen arteko giroa gero eta atseginagoa gertatuko zaizu. Hala ere, ez zaitzez etxean gelditu.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Zure partetik ezer jarri gabe gauzak ez zaizkizu aldatuko. Zerbait arriskuan jarri beharko zenuke, baina besteak izorratu barik.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Azkarrago erabakitzen ez baduzu, damutu baino ez zara egingo. Garrantzitsuena argi eta garbi daukazu, zergatik ez duzu behin betikoz pausu hori ematen ?



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Nahiz eta denbora gutxi geratu oporretarako, garaiz zabiltza aukeratu duzun bidaia aldatzeko, ez da komeni zaizuna. Ondo pentsatu, ez dira lau egun eta.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Izugarritzko aldaketa aste honetan izandakoa. Hasiera gogorra gerta dakizuke, baina ondorioak zure gustokoak izango dira. Aurrrera ba!



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Ez pentsa beti edukiko duzunik norbait zure ondoan laguntza eskatzeko. Orain arte erraza gertatu zaizu, baina hemendik aurrera bakarti samar ibiliko zara.



UDAL ARGITERIA ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOEN ZERBITZUA

Udalak ematen dituen zerbitzuen artean Argiteria eta Instalazio Elektrikoena izan daiteke funtsezkoenetako bat, nahiz eta askotan ez dugun behar bezala baloratzen.


Beherago aipatzen diren datuak egokiak izan daitezke zerbitzu honen dimentsioa eta garrantzia hobeto ezagutzeko.

1988KO ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOAK

	Instalatutako potentzia Kw	Kw. x h.	Zenbatekoa Pta.tan
Argiteria Publikoa	465	1.847.583	19.030.105
Polikiroldegia	98	392.865	5.537.490
Ikastetxeak - Ikastola	472	402.399	6.760.303
Zaharren Egoitza	70	222.122	3.334.252
Gainontzeko dependentzia eta instalazioak	535	502.766	8.820.728
GUZTIRA	1.640	3.367.735	43.482.878

ARGITERIA PUBLIKOAREN DATU OROKORRAK

Argigune-kopurua	2.525
Zutabe-kopurua	910
Hormetako farol-kopurua	796
Instalazioaren m.l.	24.500
Semaforoak (taldeak)	8
Azken 4 urteotan egindako inbertsioa	110 milioi
Instalazioaren gutxi gorabeherako balorazioa	159.881.600 pta.
1989an aurrikusitako inbertsioa	16.500.000 Pta



FAGOR 

iKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugálde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42

Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 42